



## **Aberastarzun guzien giltz bakotxa (Zuberoa XVIII. mendean)**

**Aberastarzun guzien giltz bakotxa (Zuberoa en el siglo XVIII)**

**Aberastarzun guzien giltz bakotxa (La Soule au XVIII<sup>ème</sup> siècle)**

**Aberastarzun guzien giltz bakhotxa (in 18<sup>th</sup> century Zuberoa)**

PEILLEN, Txomin  
Euskaltzain emeritua. Idazlea

Noiz jasoa: 2013-02-22  
Noiz onartua: 2013-07-09



*Euskera*. 2012, 57, 3. 801-821. Bilbo  
ISSN 0210-1564

Liburu baten asmoa baizik ez zen aurkitu. Jose Angel Irigarairi zor diogu, aitaren liburutegian aurkitu baitzuen, behin Mitxelenak aipatu zuen Jusef Egiategiren eskuidatzia. Frantzesetik etxeko ekonomiaz idatzitako liburu baten itzulpena izan behar zuen, hitzaurrea eta itzulpenera buruzko eztabaidea bat baizik ez dira aurkitu. Lan jakingarria da, zeren erkatzen baititu Zuberoan, XVIII. mende hasierako eta mendearen azkeneko ohiturak. Ondoren, beste egile batzuek Egiategiren itzulpren hori berridatzi zuten: bata hemeretzigarren mende-koa, eta bestea, osoago, hogeigarrenekoa, orduko grafiarekin «Aberastarzun guzien giltz bakhotcha».

**Hitz-gakoak:** Etxeko ekonomia, Itzulprena, Zuberoa, ohiturak, zorrak, auziak.

Sólo se encontró el voceto del libro. Y eso, se lo debemos a Jose Angel Irigarai, que halló en la librería paterna el manuscrito de Jusef Egiategi que una vez le cito Koldo Mitxelena. Es un texto relativo a la economía familiar traducido del francés, del que solo se han salvado el prólogo y una reflexión acerca de la traducción. Aún así es un trabajo de gran valor, debido a que describe las costumbres en Zuberoa a principios y finales del siglo XVIII. A posteriori otros autores copiaron la traducción de Egiategi: uno del siglo XIX; y otro más completo del siglo XX, con la grafía de aquella época «Aberastarzun guzien giltz bakhotcha».

**Palabras clave:** economía familiar, traducción, Zuberoa, costumbres, deudas, litigios.

Seule une partie du livre a pu être sauvée. Nous devons ce sauvetage à Jose Angel Irigarai qui a trouvé dans la bibliothèque de son père ce manuscrit de Jusef Egiategi qu'avait cité Koldo Mitxelena. Il s'agit de la traduction d'un texte écrit initialement en français et traitant d'économie domestique, dont n'ont pu être sauvés que la préface et un commentaire sur la traduction. C'est un texte de grand valeur car il décrit les coutumes de la Soule au début et à la fin du XVIII<sup>e</sup> siècle. Plus tard, d'autres auteurs ont réécrit cette traduction d'Egiategi -l'un datant du XIX<sup>e</sup> siècle et un autre plus complet datant du XX<sup>e</sup> siècle, avec la graphie de l'époque «Aberastarzun guzien giltz bakhotcha».

**Mots-clés :** économie domestique, traduction, La Soule, coutumes, dettes, procès.

No more than an outline for a book was found: we owe it to Jose Angel Irigarai who found Jusef Egiategi's manuscript, mentioned once by Mitxelena, in his father's library. It was to be the translation from French of a book about home economics, but only the preface and a discussion about the translation have come down to us. It is a piece of interest because it compares customs at the beginning and end of the 18<sup>th</sup> century in Zuberoa. Afterwards, some other authors rewrote Egiategi's translation: one in the 19<sup>th</sup> century and another, more complete, in the 20<sup>th</sup>, with the spelling of the time «Aberastarzun guzien giltz bakhotcha» ('The only key to all wealth').

**Keywords:** home economics, translation, Zuberoa, customs, debts, problems.

Koldo Mitxelenak *Egan* aldizkarian aipatu zuen Egiategiren eskuidatzi bat bazegoela *Aberatstarzun gussien guilts bakhota* izenarekin. Ez dakigu liburu osoa non dagoen ez eta egin zenez, nolanahi, itzulpen bat izan behar zuen. Jose Angel Irigaraik kopia zatiak aurkitu ditu; helarazi dizkidan idazkiek ez dute hitzaurrea baizik eta kapitulu baten sarrerarako aurkezpentxoa.

Bi kopia daude: bata, XIX. mendeko beste esku batena eta garaiko ortografia erdi frantsesean; bigarrena, eta hau da hemen emango dudana, XX. mende erdian Iparraldean erabiltzen zena, gaurkotik differentzia gutxi, konsonante hasperendunak izan ezik eta x, tx / ch, tch idatziek izatea.

Hizkuntzaren aldetik beste liburuak jende ikasiei zuzendu baitzituen Egiategik berak asmatu euskara garbian idatzi bazituen, oraingoan zerbaite irakurtzen daki herri xeheari zuzendua baita zuberera normalean idatzia da, bi hitz baizik ez ditu Larramendiren hiztegitik hartu: bi aldiz *berezita* ‘kapitulu’ eta behin *megopia*, ‘gogoa’. Bestalde, Oihenart miretsiz *berze* erabilten badu, zubererazko beste eta *hainbeste* buruzagitizen dira.

Jakingarriena da nola hitzaurrean, luzaro Frantzian bizi zuerotar emakume bat mintzarazten duen eta hark hemezortzigarren mende hasieratik Zuberoako gizartean aldatu diren ohiturak aipatzen ditu, gero bere filosofia liburuan Egiategik sakonduko dituenak: nola jendea auzikari bilakatu zen, nola fedea hoztu, nola emakumeak eta gizonetakoak ostatuetan biltzen eta mozkortzen ziren, nola plazako jaiak aldatu ziren, eta jantzi berriak agertu.

Ohargarria da nola Revolapezkiko bat aldaketa batzuen errudun egiten duen Egiategik, elizgizon horrek bertutearen izenean plazetan neska-mutilen euskal dantzak, branleak, debekatu zituen, *Non dantza, han infernua* plazetan denen aurrean ardoa edanez egiten ziren jaiak galdu, jendea ostatuetan edo isilpean edaten eta jauziak dantzatzeko ordez, neska-mutilak elkarri jauzi eginez lizunkerietan galtzen.

Hemezortzigarren mende azken horretan, hain zuzen Barkoxe Peillen etxeko artxiboa orduan ikusten da kontratueta, auzi paperak eta edozeratarako notarioekin ibiltzeak giroa pozoitu duela; bestalde, zuerotar foru zaharrean, 1735. urtean erdi kentzen den hartan, auziak Lextarreko Gor-

team Zuberoan bertan bukatzen ziren, aldiz gero «suan olio» apelazioa Pauen edo Bordelen egin zitekeen.

Zuberoako etxegintzak erakusten duenez, auzikeria herritarren aberas-tearekin gertatu zen, zeren artoaren laborantzarekin demografia garatu zen eta mendearen bigarren erdian etxe asko eraiki, ez bakarrik zelaietan mendietan ere, etxeetan eraikitzeko edo berritzeko urteak harrian zizelkatuak direlako. Halere, etxe handi hoherenak zorrekin, auziekin eta tabernekin desagertzen dira. Egiategik argi erakusten digu bere filosofia saioetan diruak jendeari egin kalteak, hemeretzigarren mende erdiraino iraungo dutenak, Ameriketara emigracio handia iritsi arte.

Jantziak direla-eta aldaketa da, jantzia ez dela gehiago etnia baten era-kusgarri jatorra eta uniformea, gizabanakoaren harrokeria baizik, baita industriak pixkanaka itoko duclarik lekuko ehungintzan, kolore merketako jantzi beltz eta urdin uniformeak hedatuko direla. Lehen aldiko irakurtzen dudalako bitxi zait nola alargun andreek zaia zuriajan zanaten zituzten, azpilduretan eta buztanetan beltzez markatuak, hemezortzigarren mende azke-nean badirudi dolurako beltza sartu zela.

Andere delako horrek Egiategiren ahotik ez du luzazegi aipatzen ez eta gehiegia deitoratzen fedearren hotzaldia: hiru hitzetan errana dago, «*fede noiz-paikoa ahatze*». Abadea, Erretora bi aldiz agertzen da: behin, beste jende batzuekin, andere aberats-irudi honek sosik dakarren jakiteko eta beste behin, bigarrenik Egiategi itzultzalearekin itzulpenaz eztabaidea bat izateko, ezen apaizak baitziren eskola handiena zutenak herriean eta aholkulari izan zitezkeenak.

Zoritzarrez, idazkia apika ezabatua, testua ez da osoa, salbatu dena prosa profanoaren estilistikazko euskal idazki zaharretarik litzateke, motz gelditu arren. Hitz batzuk nola itzuli galdetu ondoren, hitz arrunten erdal jatorria eta etimologiak aipatzen dira. Nahiz Egiategiren lanetan Larramendiren eragina, haren itzala ageri den, lan honetan jende xeheari zuzentzen zaiolarik euskara herrikoia darabil.

Beharbada beste oharak eta kritikak liburuaren gaiarekin, ekonomiarekin, hobeki lotuak direlako erlilioa baino hobeki aipatuak izan dira. Beraz,

frantsesetik itzulpena galdu da, baina jakingarriago zaizkigu 1780 inguruko zuberotar gizarteaz eta bere gazte garaiko munduaez Egiategik kontatzen diz-kigunak. Bestalde, zuberotar umorismoaren adibide ederra da, bere buruaz, herriko jendeaz, erretoraz, sotilki iseka egiten badaki.

Liburua *Aberastarziün güzien giltz bakhotxa* izan behar zuenaren azalean, azpitituluan irakurtzen da hirugarren liburua dela, baina susmoa dut ez zela sekula agindu itzulpena egitea; halere, hemezortzigarren mendeko bizitzaz dakarrena ekarpen jakingarria dugu. Beste biak *Filosofo Hüskaldiünaren ekheia*, garbian osoki ipini ez zuena, Euskaltzaindiak bi tomotan behin 1983an eta beste behin 2011n argitaratu zituenak dira.

Bigarren liburua *Musde Etxeberriren gogamenak* izenekoa izan behar zuen, Oihenarten atsotitzekin hasten dena eta gero bi hizkuntzetan kolegioan humanitateak irakasteko erabili zituen aforismo eta historiako aipamenak biltzen dituena, Pariseko Bibliothèque Nationale delakoan eskuidatzi gisa jasoa dago.



## Aberatstarzun guzien giltz bakhoitcha

Hogeigarren mendeko bigarren kopia

### Liburu hirourgerrena

Etcheko andere uskalduna  
Etchalteko lanetzaz jakinturik  
Aberats gerthuren dena.

Jusef Eguiateguy Zuberoan errejent denaren obra  
*Amoris mei Patria sit tibi signum liberarii munus*

### PAOEN

J.P. Vigna(n)courtaren moldizkidiatik  
Errege jaonaren moldizkide  
Cordelieren khantian dagoenetik.  
Jaon Intendantaren baimenarekila batean

MDCC

### Hamalaorduna

Uskaldun etcheko anderiari

Margaita laidore hotsez dut asetzen  
Dudano zouri haren obra eskentzen;  
Bere jakinaz nahiz zu ere jakintu  
Bihotzeakoak dereitzu heben eskentu  
Etchen duzula dio zoure zorthu hona  
Berserik bere zorthiak eman eztirona  
Bihotza diano gorago eziez zorthia,  
Nontik gutik liroan behardunen athia,  
Nola eskelegoa lizatekian nekatutrik  
Lizan ere lurra haren pheziaz arhinturik  
Ari da, nahiz zelia ezarri lurrian.  
Guziak diradian aberats goure herrian  
Gor dena berari berser bethi oro beharri;  
Honki egin etzaz dateke hilartio egarri.

Jusef Eguiateguy

## Ezkiribazaliaren hi(t)zaoria

Jondane Johaneko uthurriren nork eztakitzat senthaigallak? Nork Leistarrren eztu ikhousi jente saldoak hartara jiten urhuntik organatz, ezinez ebil, hantik etchetarat sendorik hoinez joaiten?

Basaburuko neskatala gaztebat zankho min batengatik hara ere jinik osagariaren aiduru zagoan, heltu zenian ber uthurrialala frantzies andere handibat; halakorik ikhousi etzialakoz begiak biribilik soz ari zagoan hari Margaita egun oroz. Eritarzunen igaitiak dutu bihotzak izigarri bata bestiari huillantzen; itchousi etzen Margaita, etzian ere ahalke behar beno haboro.

Andere Frantziesari batzen zian aldikhal gurrak egiten zereitzon lur(r)ia-ladrano, ta anderiak burukhaldiz ordariak emaiten. Biak ja sendo ziradian, ta Leistarrerik sarri joan gei, anderiak galthero egin zereionian Margaitari heialdizatekianez Frantziaren ikhouskholoi. Basaburuko neskatalak ohil, tchapelo-tarik doatza ihesi, laisterkaraziten monterarik batere Frantziaren, alabadere Margaita zelakoz mantso, erran zereion baietz. Etzian Margaitak aitarik, ama zaharra arraezkonturik espantagarri arren etzen, bere zuzenetzaz gozaten bazeen.

Joan zen arren Margaita Frantziarat bere andreriaren andereaoren ohoresko emplegu tchipia eztena ofizio hartan zahartu etzeno.

Senhar bat ediren zian dohain edo erosiz eztait nola. Bere anderia bizi zeno zerbutzaturik, ourthe pharrastabat ere bere senharrekila igaranik, ez haorrik harenganik ukhenik, zelarik ere propiki aberasturik herriaren ikhousi nahiaz jin zereion egarria.

Etcherat haren heltziak azaliak gehiago egin zian eziez durundaren kharaskotsek. Askaziek, haren berririk sekulan ez ukhenik, asto char baten gañen ikhousirik heltzen, oustez eskele joan eskele jiten zereiela, nekez eza-gutu nahi zien, beharri luziari ere ez ahurretabat zahi eskentu, bena ikhousirik bi mando kargaturik heltzen borthak elizakoak bezain zabalik, armariak ta hutchak bidia bezain largo ezari zutien.

Sarri Margaitaren aberastarzunaren famak burgu guzia arhinturik, han-diak ta tchipiak oro laster honki jinaren emaitera jin zereitzon Margaitari.

Parropiako Anderiak zakian, neskatogei joanik, deusere zor etzereiola, bena herri bazterretan haiñ huillan gaüzer so egiten eztelakoz, bere handitarzunetik aphalturik ere zerbaitetan, etzatekiala gutiago andere erabakirik, ikhousi behar ziala zer molde zian berri jinak frantzesian tieso zenez ta fahren aberatstarzunak bazitianeze, abiatu zen Margaita ganat.

Etzereion Margaitari, honki jinen landan erran bere gogomenak, bena bai jiten zela etchen zutian gaüza guzien eskentzera, ta hartan zagoela bere urhatsen garbinaija.

Gurtezia hartan zirelarik anderia ta Margaita heltu ziradian Jaon erretora etzelarik gutiago khoi jakitiaz Margaitaren kondairia; sotana ezta llaburago ez etare hersiago eziez kota. Margaita zombait manhu emaitera jalkhi bezain sarri Anderia, erran zereion Erretor jaonari zer adin zian Sybila zahar harek, ta zer laor mala handi hetan zena (jakitea) dolurik elukeala.

Margaita jin bezain sarri, galthro egin zereion Jaon Erretorak zombat urthe zian? Margaitak ahatze zutiala; hori, berak jakin ahal lirokiala batheiagian. Zombat dembora zen haren joaitiaz? Etxela orhit, bena bai kharrouste handia egin ziala negu hartan Frantzian. Zombat ourthez bizi izan zen bere senharrarekila? Margaitak, ourthe, hilabete ta egun honak etziradala bederatzen; muga hartakoa egunkoa bezalakoa zereioala.

Mandozainak Margaita kamporat deithurik, Jaon Erretorak erran zereion anderiari Margaitak dakiala utzuli besterik gerrenak egin elirokianik. Anderiak: «eztugia arren zer mala hoietan dian jakinen?»

Jaon Erretorak:

- Jakin nahia salbu, andere Margaita, mala hurak diharuz betherik badaode herria aberasturen dereikuzu?
- Ezta ez hor, Jaona, urherik ez etare zilharrik.
- Zer arren?
- Zahita garagar aphurbat ene beharriluziaren ta mandoentako; ene adiskiden ere zerbutzuko.

Beste halako elheren landan Anderia ta Jaon Erretora abiatu ziradian; Margaitak kharrikala laguntu ta han urhunago joan eztaitilakoz, barkhamenak zereien galthatu.

Biharamenian, zagoelarik Margaita ohian, mezu bat egin zereion bere adiskide zahar baten phartez, haren berri jakin nahia. Etxela orano hil, jinen zereiola ere sarri ikhoustera.

Etzen oren erdia igaran, heltu zenian Grazi konkor ta bi makhila tcharrez arrimaturik, Margaitaren oheala huillenturik honki jin amorkoenak eman zereitzon. Margaitak ere honki bathüekila erran zereion

– Gozo handia diñat hire ikhoustiaz. Jar hadi horticke, gitian algarreki askal, gero elhe pharrastabat barreiaturen diñagu, Jinko Jaonareki batian.

Askaria jan zienian, Grazik bere adiskhide zaharrari,

- Andere Margaita, noizpait adintsu guntutzun; honlako ta halako gaüetzaz orhit ziradia. Zer hor ta han egiten gunian?
- Izorra nuzu jakin nahia zer denbora hain luzian, Frantzian egin duzun; ni ja zahartu niz, ta ez jakin nola hain laister;

#### Margaitak

Bai Grazi, salbu ezpeiniz andere hiretako, bera bai, ohi bezala, Margaita khuto. Atzo bazuña(n), heben sudurretik tchitchariak frantchesez khentu nahi zeitzadenik, hiri huskaraz mintzaturen nun. Hamazazpi ourthe baniña joan nintzanian, hogei ta bat zerbutchian igaran ditifnant, berrogei ta bederatzuene senharraen leal laguna izan nun, zazpi dutun alhargun nizala, ourthe hek oro bederaka, erranen dereiñe noizpait ginandian bezala.

#### Grazik

Eztait. Bera bai laoretan hogei ta hamalaorgerren ourthian nizala; gaztereko hortzak ta haginak banutu, ezpanutu zankoak flaku, bista thurbuts, loa llabur, hats bahia, ouste dit gaztebat balio nukiala, ezi barnia dit net azkar.

#### Margaitak

Hi bezala nunduken Grazi, ber mintzak ezpanutu, bera badiñant hire ta ene biziparen doia. Erran izadan herriaren berri, ta badenez jente goure demborakotik?

Grachik

Nihaor niz haietarik, gutik ere haor utzi dunienetarik. Parropia hao eztuzu ezaguturen: ordunko etche hobenenak erori dirade: Haien ondokoak eskeletu ta gainelakoak ahalkez amoina ez galthatzen.

Margaitak

Erradan nola arren khambiamentu izigarri hori heltu den?

Grachik

Batzu aozietan, bestiak tahernetan, ta guziek beren konduta tcharraz. Egitekorik bage feiretarra, merkhatzale, elizabestari ta aozikari, ta bethiere tahernakari. Hala die beren galzepena obratu.

Margaitak

Baziña ere goure demboran barreiatsu zombait jente pherestien mesperetchiak usu zutienik. Bena Etcheko Andrek thapatzen zutien haien chilhoak, ta epaziren etchiak emendatzen, etzitan phuru hourtzen.

Grazik

Ordian, Margaita, etcheko anderek etzizien ardou tchortarik edaten; orai doatza herrokaz tahernetarat, bada senharrekila, bada beste gizonekila. Ardura emazteak buruz buru gizonak beno bizikiago ari dirade, ta ez hanti lehenak jalkiten.

Margaitak

Jesus Maria! Zer dereitadan erraiten, zer! Etcheko anderiaik tahernetan horditzen! Zer gaüza ahalkegarria!

Grazik

Bai eta aigardentiala, ta haien gerthaldiala neskatila gaztiac beren morroinekila, ta igaraiten beitirade arristiriak itchouski ta nola Jinkoak daki.

Margaitak

Aieia, Ama Berjina zeliak maredikatu dia arren, gure Zuberoa?

Grazik

Ez balima oraiño; bena bai beldurra hartara goatzala laister. Ezi

larregi hortarik sorthu den eskelegoak du sorthu ohoinkeria, ta hantik ohore guzien herioa.

#### Margaitak

Harritzen naiñ, Grazi, gaüza hek jakin banuntu enindiña(n) sekulan ikousiren Zuberoak. Zer ohoinkeria eja! Goure demboran hartarik hitzik etziña.

#### Grazik

Orai epta parropiarik gutik edo hanitch ohoin eztianik. Ofizio hartan hartara hatsarrian trukalerak baizik etzoatzan, orai bada etcheko jaonik hartan ari diradianik, ezagutiaik diradianik ta (umen) fabori dienik.

Oro parpailloak, ungaruz, orobat urkhategiri, ber herioa balima dukie.

#### Margaitak

Eztiradie arren zeliaren beldurrian baraturen lurrarenaz ezpadiradie, ez etare etcheari utziren dien desohoriaz.

#### Grazik

Eztait; bena kasta hora nekaturik ere, herria hanitchez maithagarriago elizateke ezi bizioek dutie bertute guziak akhasatu. Goure demboran, elizabestetan gunian soniak: branle dantzetan ari ginandian nor hobeki; ardoa zen plazala ekhartan, han ere zen edaten, ta gaitzbiderik bagetarik, nor bere etchetarat joaieten: orai halako botztarzun bakhunak dirade kasu reserbatiaik ta entzun izan da Erretor Jaon bat, pheredikuz ari zelarik bere parropianter, elizan erraitean:

*„Non da dantza, han infemia! Nor dirade sonuegiliak? Santanak! Nor dirade dantzariak? Debriak! Nor errailia? Ukha eliroana!*

#### Margaitak

Ta zer zioan sorgiletzaz? Ahatze zutiana? Hetarik, araoz, merechi zianaz zian ordariaz.

#### Grazik

Bai, khechiak hiraba hori zerion eragin, bena belhagileturik, sorgiliak alabadere etzutian sabatialat igorri.

### Margaitak

Beste mundubatetara erori nun arren, Grazi. Ikhousi diñaigu, goure demboran, Mosde Salette aphezkupu handibat, haren landan Mosde Revol gutiagoa etzena, bere aitzinekoek bezala egiten zielarik uzten gintien goure akhostuma zaharretan: ordian oro botzik bizi guntiña(n), oro jente pherestu edo inkaria guntiña(n), nor hobeki dantzan, nor arhinago jaoztekana, nor laisterrago elizalat, nor chahiago soinukoetan.

### Grachik

Horik oro egiak. Oraiko Aphezkupu Jaona saintubat dugu, honki handibaten nahian min handiagoa egin du herriari goure akhostuma bakunak dutialakoz atzerritu ta nola goure zentzu flakiek, lanetik kanpo, botzkario zombat galthro beitie, dantza debedatu bezain sarri, bizio guzien leiziala lerratu girade memoano. Goure Jaon Arretor zaharren abisak balutu Aphezkupu jaonak manhatu khambio hilotsu hori etzian eginen. Zeren eta hantik jin zeikun gaitzak chuchent ezpeitaikie sekulan.

### Margaitak

Banakia Zuberotar dantzen herioa bihotzian ere hartu dolia. Dakiñant ere Jaon Kardinal batek, berri hori entzunik, diala erran Olorouko Aphezkupu baliz soiñu egiliak phaka lirokiala dantza litian plazetan, eta mundu guzia. Egiazki ere hetan, etchekoetan beno, behkaturik bada gutiago dutun; bena handitarzunek aitzina egin dien urhatsa gibelerat berriz eztie egiten, ta hek zer nahi manhian tieso nahi dirade egon: „Maolen labearri su phiztu zianak etzian ouste hiria erreren ziala; Hillitoneko anderiaren lana zian hori; gaizki egiletzaz lehen eziez honkiegiletzaz ohart dun mundia.

### Grazik

Orhit zireia goure demboran etchekojaon ta etchekoandere guziak dantzari ederrak ziradiala; deusere ederragorik goure dantza branlia beno; hourak oro beren souñeko urdinekila, kamisola guziak gorri, galtzamoutchak elthurra bezain chouri. Emaztiak zaia berdetan, buztan luziak ta mahunkak zeta zerrendez ungraturik; burian zeta beltcha; neskatilak bilho luziak zer(r)endez

zirelarik trensaturik, burhas, amek ta alhabek, ereginaren aitarran nahas ari ezin ederrago branlian.

#### Margaitak

Bai etare ontsa orhit alhargunak zaia chourietan ziradeala berdiak utzirik, ta zaia chouriak zutiela zer(r)ende beltzez buztanak ta mahunkak ederki unguru orniturik, ta, hala plazetan jaririk soz, dantzari ari ziradiala. Gizon guziak ordian anaie, emaztiak ahizpak uduri ta bizi ziradiala Zuberoan.

#### Grazik

Orai dutugu haiñbeste kolore nola jente. Galdu dugu osoki goure ohore zaharra, ta algarri gunian amorioa dugu aspaldian ehortzi. Fede noizpaizkoaa ahatze; gizonek herriaren ohoriaz ez achol handirik, emazteek arresen gisala, khutotu buztanak, luttukieno hobeki egin balie, khutotu hanitch besterik. Hala da Zuberoa begithartez osoki khambiaturik.

#### Margaitak

Bai etare begitharte harrigarri itchousibat harturik. Bihotza de-reitadan ezari bi unkhudiren artian. Bena baliz oraino Zuberoan ohore zaharraren azia, bide baluken honki zerbaitetara. Herriz kampo haiñ beste ourthe igaran eztitiñant non zerbait ikhasi eztudan. Harez balia litakian goure etcheko anderiak nahi niken. Anderebat diñant zerbutchatu zorthia ta aberatstarzuna bardin handia zutiana.

Jagoitik, halako emazte pheresturu eztun izan: oro zakiña, orotara eskiak ezarten: etcheko andere pherestiaren eginbide guzia berak eginez manhatzen bazakiña, ta ahatz e'nentzan, ezkiribuz niri (sic) emanik, ekharri ditiñant, ene khostuz behar baliz ere moldizkidaturik, dohaiñ bat herritarrer egingei diñant: norbaiti lanaren obra eman dereiodan, sokhorri galthro dereifñant.

#### Grachik

Entzunik naho (sic) herri bazter hoietan errejent famatubatez, delakoz liburu egile; zertan ari den eztait; berartarik jakinen duzu; bihar goizan dateke heben errejenta erran bezala manhiala jinik.

Margaitari ere erranik zer liburu gei zian sarri argila ezarri, bere zerbutchiak hontarzunaz ta zereitzon eskentu. Margaitak emaiten zereiolarik

papela erakouts lezan nori nahi, berme zagoela hontarzunaz eta gastietzaz erran zereion. Askalerazi errejenta berarekila, zereiolarik jakintzez jakintsia zela bizi; bera megopiak khorpitzaren behar ziala sustengia ta honek bazka; hala batetik besteala zoala hazkurria.

Juseffek erakhoutsi zianian Margaitari bere jakitate handiaren doiala behar zereiola bazka, iztezainak azkartu zutianian, jin beno lasterrago joan zen botzik etcherat. Hantik ere laister Jaon Arretorrareniala (sic) Margai-taren papelaren erakhoustera.

Bizp(ah)irour egunen landan bi jaon aphezek deithurik errejenta, Jaon Erretorak zereion erran:

„ To, Juseff, hire ezkiribia, ihour eztuk ikhousi dukianik, aithoren eztiana, egin dianak dakiala etcheko andere guziek beno haboro. Lagunik eztirok eman hire bi liburu lehenen hounen parerik; dutielarik hetan etcheko jaonek beren eginbidia chuchen; leial lukek etcheko anderiek lukien ere beriak heben edirenent dutienak.

Utzul ezak frantsetzik huskarala ahalik hobekiena. Ta hire obrak ordaririk ezpadu zorthu gaitz hartan ehizate lehena ez etare azkena izanen; laidoria phuru dukek ezarten baduk zolan *Hoc ego non effeci, tribuitur alteri honos*

Etcheko andere huskalduna  
Etchalteko lanetan jakinturik  
Laidoretzaz herrian aospeturik  
Datekiiana.

## Liburu III

### Berezita I

#### Baratziaz

Non ta nola baratziaak hon izaiteko izan bekar lukian, gunuke heben lankhei luzia. Bera usten dugularik eginak diren bezalako direlakoz etche hobenetan haskurriaren herena etcheko anderiaren ere gobernian, lehena

hantik lothuren girade liburu honen obrari, zerbait ere balima berririk berrezita hontan erranen.

Dugun lehenik jar, deuserez deusere egin eztaitekiala, ta eskulanetan deusere eztela, antsia, arrankura ta lan edo gastu khoste eztena. Lurreko paradusutik aspaldian kamporat giradiala akhasatiak, ta gure izerdiaz gure bizipena irapaizi behar dugula gogoan hek igaraiten badu(tu)gu, nola izerdi harez hobeki baliaturen giradian da megopia hobenaren eginbidia. Dugun ikhus zerbait heben badenez etcheko anderen jakinandia merexi lukianik ta giradelarik haien hontarzunetzaz ....

#### BEREZITA XIII

### **Jaon Erretoraren ta Errejentaren elheketzaz**

Jaon Erretorak

To, othian Juseff, zertan hiz hire obran?

Errejentak

Jaon Erretora, ja ene oustian bi herenak beno gehiago buztanturik zouregana jingei nintzan othoi egitera, zoure begi argietzaz (nahi bazunu) eman begi khaldibat ta zoure hontarzunak dukat bat.

Jaon Erretora

Topa, (...) ekharezak egina eta emanen dereiat, (ere) bai edo ez, dianez Andere Margaita behar bezala mintza erazi.

Jin bezain sari errejenta aphezgiala erran zereion Jaon Erretorak

Juseff ezin hobeki duk fran(tsesetik) huskaratu:halako obraren ahalkeen undukek banintz aita, eztuk hor adarkatu behar denik, ez etare gora beherarik. Jarraikezak ber bidia heltu izatekiano (azkeniala), ene gain honki jina datekiala.

Errejentak

Alabadere, Jaona, erlien berezitak izerterazi naianak, emanen dereitadala ezkernio lotsa handian nago.

Jaon Arret.

Ago ixilik, frantzeseko erdiaz (...) ta obra guzia orozbat. Gaü-zak nahi gintik(ek) llabur, ikhas ginentzan khuto

Errejenta.

Bena Jaona zer da likio (.), therm(ainu) hori eztut ikhousiene gramatikan?

Jaon Erret.

Hire gramatika duk astobat. Goure sakoletan dugun oihal be-derak, propiki Bearnesek *mouka naz* deitzen dien, frant(zesez) aldiz *mouchoir* hi bezalakoek aldiz «a» bat buztanian ezarririk (h)uskaratu duziena, egiazki gogo eman diat Basaburian diradiala lehenari lothu, Pettarrian aldiz biggerrena delakoz arhina-go; hala oihal horrek kamboilak bezala bi (zerbutzu dik) ta su-duraren chahatzea (ta buriaren tapatzea) anderetan. Jaonetan aldiz sudurretik zikhinaren khentzian ta begi(etako) izerdia.

Errejenta

Zer da kamboila, Jaona?

Jaon Erret.

(uduri) hegatz bat zetaz, plegatzen dena zabaltzen ere Parapluie (frantzesez) eurian deitzen, parasol aldiz ekhiarengatik. Noiz-pait lekhaioek bere anderien buztanak e(s)ku batez altchatzen (zutien). Kamboila zabal eta gora etche-kitzten. Orai .....hainbekhant, neskatoek beriak ilhar biltzeko baratzian.

Bena kamboila eztelakoz hain eztiz *parapluie*, *parasol* dudabagerik huskarak galduren diala bere zuzena.

Anderen lankheietan bad(a) oraino bat evantail edo esbantail izena diana. Evantail, arren hain eder, bohaderaren khimper(arri) aizaria edo aizetaria, biak lutuzke huskarak. Nahi n(uke) ere bilhoen moldatze berri *herisson* deitzen denari huskal herrieta sagarroi (triku,kirikino) bere izen proprio dena eman, egiazki pare dienak. Baduk oraino *coupé* deitzen dena. Harritzen nuk hainbeste fabori ukhen eta nola eztien huskaratu ba haren thermaña, anderei agrada eli(zate). Bena ...hek. (frantzestu). gin-tiroek, dugun goure elhiak jarraiki.

Berriz dereiat erraiten Juseff.kampo, dukila Andere Margaitaz laidore franko, berzeturik nabasiki guti. Bena dakik bihi guziek ezt(iela) ogi jan eraziten ez etare bethiere (lanaren) ezagutziak jarraikiten.

Errejenta

Jaona gaüza bakhoitch batek nai bihotza .....heia, diroienen erranen, ber g(isaz) nahi dudala ikhas erazi nihaorek eztakidana?

Jaon Erret.

Min hori baizik ez paduk laister sendoturen dereiat (sic)

Errejenta

Bena, Jaona badakizia nolako diradian basa jakintsu batzu goure bazterretan, barberetzaz niz mintzo. Tahernan lagun athe bat giradianian, her baizik mintzatzia (zilegi). Guziak dakitze bere jakintziaz gutie ithotzen.

Argizagiaren fasetzaz, udako ta neguko solstizetaz dereizkie buriak haosten. Egun batez galthro egin nereien gor(etzat) zer ziradian faseak? Ziradiala argizagiaren gora beherak marea guzien uthoruria. Zer ziradian solstizeak? Ziradiala ekhia denian kanzeraren ta kaprikornaren barnian. Denian lehenian dutugula egun luzenenenak, biggerrenian aldiz laburrenak, hek diradiala ere sangraduraren itzarotzak direlakoz batian heriogarri, (bestean) sendogarri. Nereion ere galthatu zer zen itzarotza? Duk, asto poutza ziolarik khe zu(ker), *boussole* frantzesez deitzen dena.

Oh! Jaon Barbera hori ezterezitzut igaranen Zoure itzarotza ge-zurtaria dela brobaturik dago. Ezi zoure soltsitzean (s)angratu izan diren ourdetarik guziak ikhousi dutut hiltzen.

Jaon Erretora (erri karkazaz)

Hartan zer arrapostu eman zerei(an) Barberak?

Errejenta

Batere, Jaona. Begi biribilturik samurkeria handian zagoela ikhousirik ta (baketu) nahiz, aoherki erran, banakiala harek etzutiala sangratu. Joan zen ziolarik, haren aztaparretan erorten banintzan, harek sangraturen nundiala behar bezala.

Jaon Erret.

Sinhesten diat. Ni berme har eta halakoek sangraturen (haie) hire liburua kaprikorenako mugan delakoz hen ofizioaz mintzo.

Errej.

Jaon Erretora ogen dikezie ezi ni eniz medika dirionetzaz has (egiten).

Jaon erret.

Ez bena bai *utsularria* Frantzesez utzirik bekhatia tchipi lukek, huskaraz dukek mortal dialakoz goure etcheko andere guziak barbertu.

Errej.

Hala baliz ere, Jaona, mina hain handi lizatekia.

Jaon Erret.

Ez egiazkorik. Bena egin baginiro goure oskiak zer erran liroie oski egileek. Eztugia guziek goure ofizioetzaz bizi beharra. Ohore egit(ea) dago phuntia: bost sos khosta hogei phaka-eraztia bide har, etzakiat sobera elizatekianez hamarren galtha-tzia: hetan joan jinak, (prezioak) lana ezari, osagarriari phezia arhintxiago lukek ta herioak bethi ogen dialakoz (eliro egin) deusere bena bai zerbait kontzientziari; ezi monopolioa duk ohoinkeriaren askazi huillenen; nonbait ere e(z)kiribuz bere kastigoa diana.

Jarraik-ezak hik bihoztoiki hire egingeia, lan guzietan buztana duk gaitzena. Eztukek naba(ski) aoher hire liburua beno jakintsuago eztirener. Ekhar izadak (az)kentzia ikhousi nahiaz huskaraz izigarri gaintzen egarría.

Tx. Peillenen iruzkina.

Honela amaitzen da idatzia, errejentak diolarik ez duela barberak sanguinato txerrietarik bat bizirik irauten ikusi eta berak ez lezakeela bere burua utz esku harrez odola ateratzena. Euritakoa (paisola) eta sudurzapi (mokanas) hitzen inguruko itzulpenekin, tonu berdinean jarrai genezake: gure hizkuntza, gure eguraldiak bezala euritik marrantara ibilten zaizkigulako.

## Bibliografia

- ALTUNA F. (S.J.), 1967, «Larramendiren iztegi berria», *Euskera*, 12, 139-300.
- BELA J. de *Tablettes? Archives Départementales de Pau*, Ms IJ 62/2 Maulen egi-na, argitaragabea.
- BELA J., 1665, *Commentaires à la coutume de Soule*, Baionako Euskal Museoan, argitaragabea.
- LARRAMENDI M. de (S.J.), 1745, *Diccionario trilingüe*. Donostia.
- MITXELENA, L., 1963, «Eraskin gisa» *Egan*, 1-3, Donostia, 78-81. Egiategiren Aberastarzun guzien giltz bakoitza, aurkitu zuenaz.
- PEILLEN, Tx., 1963, «Juseff Egiategui, Larramendiren zuberotar jarraikizale bat», *Egan*, 1-3, 75-77.
- \_\_\_\_\_, 1983, *Lehen liburia edo Filosofo huskaldunaren ekheia : [(1785)]*. Euska-raren lekuoaak 6. Euskaltzaindia : Bilbo.
- \_\_\_\_\_, 2011, *Egiategiren filosofo huskaldunaren ekheia*, [bigarren liburukia]. Eus-kaltzaindia: Bilbo.